



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org



JUNDIZKO ENPRESEN ZENTROKO INGURUMEN KONPROMISOA 2017

2017an 10 urte beteko ditugu Ekoscan® ingurumen hobekuntzaren kudeaketa-sistemarekin; hamarkada bat JUNDIZ Enpresen Zentroko (Jundiz EZ) kudeaketa ingurumena integratzen hasi ginenetik. Denbora horretan, dagozkigun legeak betez gain, zifrak jarri nahi izan dizkiegu Zentroko jardueraren ondorio diren ingurumen-inpaktuei, eta neurriak hartu ditugu zenbaki horiek gero eta txikiagoak izateko.

Ekonomia zirkularra eta karbono gutxiko ekonomia egiteko saialdi moduan, aurten berriro ere fokua jarri dugu hiru alor hauetan: gure baliabide-kontsumoak murriztea, gure instalazioen garbiketak eta mantentze lanek sortzen dituzten hondakinen birziklapena bermatzea, eta zentroan dauden enpresei hiri-hondakinen antzekoak diren hondakin-frakzio guztiak banantzeko aukera eskaintzea.

Lehenengoari dagokionez, hau da, baliabide naturalen kontsumoari dagokionez, ura eta energia dira oraindik kontrolatu behar ditugun alderdiak. Papera, berriz, ez da jada hain kezagarria. Izan ere, gero eta prozesu gehiago era telematikoan egiten dira.

Zentroaren bizitzan nolabait parte hartzen duten pertsonen ingurumen-sentsibilizazioari dagokionez, 2017an jarraitzen dugu erosteko zein kontratatzeko prozesuetan ingurumen-irizpideak kontuan hartzen eta gure hornitzaileen ingurumen-jarduera ebaluatzen. Gainera, aurten, Zentroa bere inguruan integratzeko eta bioaniztasunaren gainean ezartzen dituen eragin txarrak txikiagotzeko pausuak ematen ari gara.

Jundizko EZ enpresen komunitate bizia da, pertsonen eta pertsona horien arteko harremanez osatutako elkarte, hain zuzen, eta ezin dugu ahaztu sistema hori beste sistema handiago batean barneratuta dagoela: sistema natural bat, eta horren gaineko eragin txarrak txikiagotu ahal ditugu eta txikiagotu behar ditugu, eta eragin onak maximizatu behar ditugu, eta hori lan alor berri bat da JUNDIZ EZan eta ilusioa egiten digu. Ea laster ikusten ditugun emaitzak.

2017ko maiatzean